

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2020

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

BIGARREN SARIA:

*Aita*

Jon Etxalar Lazkanotegui

Hilabeteak generamatzan momentu horren esperoan. Irrati bidezko deialdiak eta eskutitzak izan ezik, ez genuen hilabetez kontakturik izana aitarekin. Aita 8 hilabete inguru egoten zen Kanadan, arrantzan. Etxera iritsi eta pare bat hilabete deskantsatu ondoren itsasontzirantz bueltatu ohi zen. Beraz, bi hilabete haietan ez zegoen ez errieta ez haserre ez tristurarentzako unerik. Printzesak bezala tratatzen gintuen, eta Ama erregina gisa. Bera iritsi aurreko asteak nire momentu gogokoenak ziren. Etxean alaitasuna nabari nezake, Ama beti irribarretsu zegoen eta ahizpak, jatorrago.

Bi aste falta ziren Aita portura iristeko, eta sukaldeko egutegiaren aurrean egon ohi ginen hiru ahizpak eguna pasako zen esperoan, boligrafoarekin gurutzea ipintzeko, egun berezia hurbiltzen zela ikusiz. Arratsalde batean, Ama gutun batekin batera bueltatu zen erosketak egitetik. Aita itsasoan zegoen bitartean, hainbat eskutitz iristen zitzaizkigun, atzerapen handiekin ordea. Sutondoaren inguruan esertzen ginen Ama eta ahizpak, eskutitzak banan-banan irakurtzera, abenturazko nobelak izango balira bezala. Mezua duela hiru hilabete idatzia zuen Aitak. Itsasoan gertatutako arazo bati buruz ari zitzaigun. Antza denez, ezpatadun arrain batek itsasontzia zulatua zien. Zortea izan zuten, itsasontzia hondoratu baino lehenago portura iritsi baitziren. Barku berri baten esperoan zeudela zioen, baina ez zirela pentsatutako data baino beranduago iritsiko. Gutuna gu ikusteko irrikan zegoela esanez amaitzen zuen. Hori irakurtzean ezin izan genituen irribarreak izkutatu, begi bistakoa zen aitaren itzulerak eragiten zигun alaitasuna.

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

BIGARREN SARIA:

Aita iristekoa zen egunean, esnatu eta ederki prestatu nintzen. Ilea orraztu eta soineko gogokoena jantzi nuen. Portura iristean beste hainbat emazterekin elkartu ginen, eta baita haien seme-alabekin ere. Batzuk ezagutzen genituen, eta jolasetan aritu ohi ginen itsasontzia itxoin bitartean. Marinel baten alabak hurbildu zitzaizkigun, jolasteko eskatuz. Korrika, saltoka... itxoin genuen Aita, Ama beste emazteekin algaraka ibili bitartean. Arratsaldeko bostak aldera, itsasontzi bat ikusi genuen urrunean, eta urduritasuna pilatzen hasi zen. Gure aurpegietako irribarreak ez zaizkit inoiz ahaztuko, alaitasun puruaren isla ziren eta. Itsasontzia hurbildu ahala, zenbait marinela ikusi genituen agurtzen, baina Aita ez zegoen haien artean, bera baitzen itsasontzia gidatu ohi zuena.

Lehen marinelen jaitsierarekin batera lehen algara eta malkoak hasi ziren. Pixkana, marinela guztiak atera eta haien emakumeak, seme-alabak agurtu, besarkatu edota musukatzen zituzten, baina Aita, ordea, ez zen itsasontzitik atera. Zerbait biltzen egongo zela pentsatu nuen, baina tarte luze baten ostean banekien zerbait ongi ez zegoela. Marinela guztiak jada haien familiekin etxerantz abiatuak ziren, eta Ama eta ahizpak geunden bakarrik portuan. Orduan, Kaxiano, bigarren kapitaina, atera zen barkutik. Bere aurpegiak ez zuen ezer onik irudikatzen, baina ez nituen inoiz bere ahotik aterako ziren berriak imajinatu izanen: Aita ez zen etorriko. Ez gaur, ez bihar, ez inoiz. Amak, malkoek bere aurpegia laztandu ahala, heriotza nolakoa izana zen galdetu zionean, Kaxianok ezetz egin zuen buruarekin. Aita ez zegoen hilda. Bizirik zegoen, baina Kanadan gelditua zen, marinela frantses batekin. Tropa guztia harridura gelditua zen elkarrekin zeudela esan zietenean. Harridura ulertzekoa zen, alaba eta emaztea zituen gizon batek gizonak gustatzen zitzaizkiola aitortzea ez zen egunero gertatzen zen zerbait. Ama mutu gelditu zen. Ni ez nintzen gai izan haren aurpegiak haserrea, harridura ala tristura irudikatzen zuen jakiteko. Tarte luze bat pasa zuen isilik zerbait esaten saiatzen, inolako arrakastarik gabe. Ni ere harridura negoen, hasieran broma bat zela pentsatzen nuen, baina zoritxarrez, laster ulertu nuen egoera hura benetakoa zela.

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

BIGARREN SARIA:

Etixeranzko bidea oso arraroa izan zen. Ez genuen ez Aitari ez ezeri buruz hitz egin, isilik pasa genuen bidaia osoa. Pixkanaka, egoera bereganatu genuen, eta aitaren izaera eta ekintzak aztertzen saiatu ginen. Klitxeak, estereotipoak... bilatu genituen, edozer gauza nahikoa zen urteetan bizi izana genuen gezur hori susmagarria zen ala ez ondorioztatzeko. Baina ezer ere ez. Ez genuen ezer aurkitu. Herrian barna berria zabaldu zenean hamaika zurrumurru iritsi zitzaizkigun, baina egia apur bat aurkitzea zaila zen asperduraren ondorioz sortutako kontu haietan. Hilabete haiek gogorrenak izan ziren. Eskolan isekak, txistek... etengabe entzuten genituen, eta etxera iristerakoan Ama triste eta botata aurkitzen genuen.

Pixkanaka aurrera egin genuen. Ama bakarrik bizitzera ohituta zegoen, eta laster behartu zuen bere burua normaltasunera itzultzera. Urte baten ostean, Amak gizon bat ezagutu zuen, ondoko hiri batean, eta berarekin bizitzera joan ginen. Herrira noizbehinka joan ohi ginen, baina amarentzat oraindik gogorra zen hainbeste oroitzapen burura ekartzea, aitortu nahi ez bazuen ere. Handik urte batzuetara, aitarena amets huts bat bezala gogoratzea lortu genuenean, eskutitz bat iritsi zen, Torontotik. Aita hil egina zen HIESaren ondorioz. Eskutitza Pierre bere mutil-lagunak idatzia zuen. Elizkizunak eta ehorzketa jada ospatuak ziren, baina guk jakin behar genuela uste zuen. Berriek ustekabean harrapatu gintuzten. Jada ahaztuta genuenean Aita gure memoriara bueltatu zen. Heriotza moduko bat bizi izan arren, egia da hilda zegoela jakiteak desberdin eragin ninduela, azken finean, Aita zen. Amak garrantzi handia ez zion eman, edo horren plantak egin zituen gure aurrean. Eskutitza zakarrontzira bota zuen, eta Aitak abandonatu gintuela gogoratu zigun, tristura ekiditeko.

Arratsalde batean, institututik bueltatzean, Amak iritsi nintzela ez zuen nabaritu. Sukaldean ikusi nuen negarrez, aitaren argazki bat eskutan zuela. Ez zuen guztiz ahantzia, maitatzen jarraitzen zuen, azken finean berarekiko gorrotoa aurrera jarraitzeko erabilia zuen, baina maitasunak beti irabazten du gorrotoaren aurkako guda, eta hau ez zen salbuespena.